

INVOCACIÓN #9. BILBO

“La danza del futuro” liburuauren aurkezpena *

Jaime Conde-Salazar (ESP)

Urriaren 6a

17:30 – 19:00h

Medialab2

Sarrera libre lekuak bete arte

(*) Anti Liburudendarekin lankidetzan antolatua

“La danza del futuro” ia-ia ustekabeen idatzi zen 2015eko uztailearen eta 2016ko abuztuaren artean. Orain, idatzi ondoren, bueltatu egin behar da. Ekintza horren bidez, liburua agerraraziko da. Inprimatutako hitzak ordenatu egingo dira eta adierazitako tokian eta egunean bertaratzen den bakoitzari objektu gisa eskaini ahal izateko moduan ezarriko dira. Horretarako, laguntza-erregu bat gauzatuko dut, jabetza kentzeko ariketa moduko bat. Testua mugitu egin behar da eta banatzen gaituen distantzia burutu behar du. Ibilgailua honako hauek osatuko dute: ahoskatutako hitzak, erdian agertuko diren isiltasunak, asaldatutako entzumena eta gure gorputzen mugimendu leunak. Lan horiek gauzatzen joango dira, eta azkenean, destinoa distira baten gisa agertuko da aurrez aurre aurkituko den begiradan, ustekabeen, hori ere.

SIESTA+MAYÉUTICA

Praktika koreografikoaren inguruan hausnarketa saioak

Jaime Conde-Salazar (ESP)

Urriaren 7 (CAC1) eta urriaren 8 (Sala Bastida)

16:30 – 18:30h

Sarrera dohainik

Nola izan erabilgarri? Zer egin nire presentziak zerbaiteko balio dezan Dantzan Bilakaren barruan orain aurkeztu dutenerako urtebete lanean jardun duten artistentzat? Zer nolako tokia sortu dezakegu proiektu honetan modu ezberdinetan eta une ezberdinetan parte hartu dutenak barne hartzeko?

Hasteko, SIESTA bat. Lehenik, gure burua zaindu behar dugu. Beraz, jan ondoren, atsedean hartuko dugu. Horretarako, espazio bat irekiko da, non lagundurik lo egin nahi duen oro sar daitekeen. Argi oso ahulak, gorputzak hedaturik edo modu erosoan jarririk eta ahots bat. Ahotsak hainbat kontu kontatzen ditu gorputzak babesteko. Hitzak ez dute hainbeste balio zentzua sortzeko; aitzitik, laztantzeko balio dute. Helburua da lo egitea joan-etorriko entzute baten babespean, ihes egi-

ten duen eta leunki desegiten den aditasun batean. Ulermena izango da bustitzen gaituen eta ondoren baztertzen den olatu leun bat. Hori izango da bide perfektua nolabaiteko argi-egite bat gauzatzeko: azkenean, lo egin ondoren, eta zorte pixka batekin, ikusteko unea iritsiko da, irudia indarrez agertzeko unea.

Siesta ondoren, gure gorputzetako nagiak bota ondoren, lanari ekingo diogu: lanen gainean hitz egingo dugu. Baina elkarrizketa, hausnarketa akademikoa, feedback burutsua edo burutazio teorikoaz gain, gurekin eta munduarekin eskuzabalagoak diren kontzientzia-espazioetan sartzen saiatuko gara. Horretarako, maieutika erabiliko dugu, antzinako Greziako filosofoek martxan jarritako teknika, dakigula ez dakigun horren guztiaren kontziente izan gaitzen. Bi irudi. Batek emaginarena egiten du eta bere galderen bidez, erantzunak iristea laguntzen du. Bitartean, besteak erantzunak bilatzen ditu bere kontzientziaren bazterretan ezkututzen den hori azaleratzeko.

Jaime Conde-Salazar Pérez (Madril, 1974) Artearen Historian lizentziatua (Universidad Complutense de Madrid). MA in Performance Studies (New York University) masterra lortu zuen MEC-Fulbright beka baten bidez. 2003 eta 2006 artean Universidad de Alcaláko “Estrella Casero” Dantza Gela zuzendu zuen. Aldizka esku hartu du dantza-kritikari bezala honako aldizkari hauetan: Por la Danza (Madrid), SuzyQ (Madrid), Ballet/Tanz (Berlin), Mouvement (Paris), Hystrio (Roma) eta Obscena (Lisboa). 2009/2010 ikasturtean Erromako Real Academia de España-ko bekaduna izan zen. Dramagile gisa hainbat sormen prozesutan parte hartu du, besteak beste, honako hauei lagundu die: Ben Benauisse, I-Chen Zuffellato, Idoia Zabaleta, Antonio Tagliarini, Maia Villot, La Ribot, Claudia Faci, Elena Córdoba, Bárbara Sánchez eta Aimar Pérez Galí. 2015ean “La Danza del Futuro” liburua argitaratu zuen (Graner-Mercat de les Flors). Egun, aldizkako lankidetzan eskaintzen du hainbat proiektutan Graner-Mercat de les Flors zentroaren bidez, eta arte eszenikoen aholkulari gisa jarduten du AC/E erakundearen bidez.



INVOCACIÓN #9. BILBO

Presentación del libro “La danza del futuro” *

Jaime Conde-Salazar (ESP)

6 de octubre

17:30 – 19:00h

Medialab2

Entrada libre hasta llenar aforo

(*) organizado en colaboración con Anti Liburudenda

“La danza del futuro” se escribió de una forma casi accidental entre julio de 2015 y agosto de 2016. Ahora, una vez que la escritura ya ha tenido lugar, llega el momento de devolverla. Por medio de esta acción, se hará aparecer el libro. Las palabras impresas serán ordenadas y dispuestas de tal manera que puedan ser ofrecidas como un objeto a cada una de las presentes en el lugar y día señalados. Para ello, llevaré a cabo una invocación, una especie de ejercicio de desposesión. El texto tiene desplazarse y recorrer la distancia que nos separa. El vehículo serán las palabras pronunciadas, los silencios que aparecerán entre medias, la escucha excitada y los movimientos sutiles de nuestros cuerpos. Trabajos que se llevarán a cabo hasta que, frente a frente, el destino se encarne como un fulgor en la mirada encontrada, esta vez también, por sorpresa.

SIESTA+MAYEÚTICA

Sesiones de reflexión abiertas en torno a la práctica coreográfica

Jaime Conde-Salazar (ESP)

7 de octubre (CAC1, espacio de encuentro) y 8 de octubre (Sala Bastida)

16:30 – 18:30h

Entrada gratuita

¿Cómo ser útil?, ¿qué hacer para que mi presencia sirva de algo a las artistas que llevan un año trabajando en lo que ahora han presentado dentro de Dantzán Bilaka? ¿qué lugar podemos crear para acoger a quienes, de distintas maneras y en distintos momentos, han participado en este proyecto?

Para empezar, una SIESTA. Lo primero es cuidarnos. Así que después de comer, reposar. Para ello, se abrirá un espacio al que podrá acceder cualquier persona interesada en dormir acompañada. Luces muy tenues, cuerpos tendidos o colo-

cados cómodamente y una voz. La voz cuenta cosas para arropar los cuerpos. Las palabras no sirven tanto para crear sentido como para acariciar. Se trata de un dormir arropado en una escucha que va y viene, en una atención que se escapa y se disuelve suavemente. El entendimiento como un suave oleaje que nos moja y que luego se retira. El camino perfecto para que tenga lugar cierto alumbramiento: al final, después de dormir, con un poco de fortuna, llegará el momento de ver, de la irrupción de la imagen.

Justo después de la siesta, después de desperezar nuestros cuerpos, nos pondremos a la labor: hablar de las obras. Pero lejos de la entrevista, la reflexión académica, el feedback sesudo o la ocurrencia teórica, intentaremos adentrarnos en espacios de consciencia más generosos con nosotras y con el mundo. Para ello, recurriremos a la mayeútica, esa técnica puesta a punto por los filósofos griegos antiguos para llegar a ser conscientes de todo aquello que sabemos sin saber que lo sabemos. Dos figuras. Uno hace de comadrona y con sus preguntas ayuda a que lleguen las respuestas. Mientras el otro, busca las respuestas para hacer emerger aquello que se esconde en los recovecos de su consciencia.

Jaime Conde-Salazar Pérez (Madrid, 1974) es licenciado en Historia del Arte (Universidad Complutense de Madrid). Obtuvo su MA in Performance Studies (New York University) gracias a una beca MEC-Fulbright. Entre 2003 y 2006 dirigió el Aula de Danza “Estrella Casero” de la Universidad de Alcalá. Ha colaborado regularmente como crítico de danza en revistas como *Por la Danza* (Madrid), *SuzyQ* (Madrid), *Ballet/Tanz* (Berlín), *Mouvement* (París), *Hystrio* (Roma) y *Obscena* (Lisboa). Durante el curso 2009/2010 fue becario de la Real Academia de España en Roma. Como dramaturgista ha acompañado procesos de creación de Ben Benauisse, I-Chen Zuffellato, Idoia Zabaleta, Antonio Tagliarini, Maia Villot, La Ribot, Claudia Faci, Elena Córdoba, Bárbara Sánchez y Aimar Pérez Galí entre otras. En 2015 publicó el libro “La Danza del Futuro” (Graner-Mercat de les Flors). En la actualidad colabora regularmente en distintos proyectos con Graner-Mercat de les Flors y como asesor de artes escénicas con AC/E.